

TARIFAREN MEMORIA EKONOMIKOA, INTERNETEKO STREAMING ZERBITZU-EMAILEEK EKKIren ERREPERTORIOKO OBRAK ETA INTERPRETAZIOAK ERABILTZEKO

Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI Elkartea (EKKI) entitate bat da, jabetza intelektualaren eskubideen kudeaketa kolektiboa egiten duena. Honako hauen babesean eratu zen: apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilea, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onesten duena (aurrerantzean, JIL), eta ekainaren 28ko 141/2011 Dekretua, Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako akordioa onartzen duena. Akordio hori zera da, Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruzkoa.

Euskal Kulturgileen Kidegoak baimena jaso zuen, Kultur Ondarearen Zuzendariaren 2014ko urriaren 20ko Ebazpenaren bidez, era eskusiboan edo gehiengoz jarduteko Euskal Autonomia Erkidegoan, Jabetza Intelektualaren Legean aitorturiko eskubideak kudeatzeko entitate gisa.

Haren estatutuen arabera, helburua du egileen eta beste eskubidedun batzuen ondare eskubideak kudeatzea. Besteak beste, memoria honetan datozen tarifak kudeatzen ditu; kasu honetan Interneteko musika-streaming zerbitzu-emaileek Euskal Kulturgileen Kidegoa EKKI Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatearen (aurrerantzean, EKKI) errepertorioa erabiltzeko daudenak:

- a) Erreproduzio eta komunikazio publikotik eratorritako eskubide eskusiboak, beste eskubide batzuen edo lotutako eskubideen egilezari edo titulartasunari dagokionez (artista interpretatzaile edo jotzaile eta produktoreenak, JILren II. liburuan azaltzen direnak), literatura, antzerki eta musikako obrei buruz.
- b) Eskubidedun horiei dagozkien ordainketa hutseko eskubideak, bereziki JILko 20, 90, 108, 116 eta 122 artikuluetan zehazten diren heinean, aurretik aipatutako obren erreproduzio eta komunikazio publikoari dagokionez, eta artista interpretatzaile edo jotzaileen interpretazio eta prestazioak barne hartzen dituzte fonogramen erreproduzio eta komunikazio publikoari dagokienez.

Memoria honen xede diren tarifetatik kanpo geratzen dira erabiltzaile-mota horri ez dagozkion erabilera guztiak, bai eta EKKIren tarifa orokorren katalogoan berariazko tarifa duten guztiak ere.

I. ERABILTZAILEA IDENTIFIKATZEA ETA ERABILERA-MODALITATEA

Memoria honen xede den tarifa Internet bidezko *streaming* zerbitzu-emaeleek EKKIren erreperiotorioko obren erabilerari dagokio. Zehazki, bereziki musika-plataformei edo oro har audio-plataformei egiten die erreferentzia, *podcastak* eta audioliburuak ustiatzea barne. Horiek prestazioak eskain ditzakete Interneteko helbide, aplikazio edo antzeko erabilerako baten bidez obretarako sarbidea ahalbidetuz, eta obrak aldi baterako edo modu iraunkorren deskargatzea eskain dezakete edo ez.

II. TARIFAREN OSAGIAK BANAKATUTA ETA AZALDUTA

Tarifa hauek ordeztu egiten dituzte EKKIren tarifa orokorren epigrafeetan Interneteko streaming zerbitzuak ematen dituzten erabiltzaileentzat ezarritakoak. Era berean, bat datoz martxoaren 28ko CUD/330/2023 Aginduan ezarritako printzipioekin. Agindu horren bidez, jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten entitateek beren erreperiotorioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifa orokorrak eta tarifa orokorrekin batera aurkeztu beharreko memoria ekonomikoaren edukia zehazteko metodologia onartzen da.

a. ZERGA-OINARRIA

Zerga-oinarriaren kalkuluan, hainbat aldagai ezartzen dira, erreperiotorioaren ustiapenari lotutako diru-sarreraren (EULD) zenbatekoa zehazteari dagokionez, ustiapeneko diru-sarreraren edo beste diru-sarrera batzuen guztizkoaren barruan, erreperiotorioaren erabilerak jardueran duen garrantziari dagokionez.

- Egozgarriak diren gastuetan, eta hortaz, erreperiotorioaren erabilerari loturikoak, modu enuntziatiboan hartzen dira kontuan erabiltzaile publiko zein pribatu gehienen diru sarrera nagusiak: harpidedunen kuotengatiko diru-sarrerak, publizitateagatiko diru-sarrerak, ohiko jarduera garatzeko jasotako dirulaguntzak eta sektore pribatuan duten paraleloa, ustiapen-defizita estaltzeko egindako kapital-ekarpenak.

- Espezifikoki egozgarriak ez diren gastuetan, aurreko atalean ezarritako izaera orokorreko zehaztapenak hartzen dira kontuan.

b. ESKUBIDEAK ERABILTZEAGATIKO PREZIOA

CUD/330/2023 Aginduaren 5. artikulua edukiarekin bat etorriz, **erabilera eraginkortzat** hartzen da erabiltzaileak bere jarduera osoan EKKIren erreperiotorioa erabiltzea, eta hori banaka identifikatu ahal izango da. EKKIk soilik erabilera eraginkorraren identifikazioan oinarritutako tarifa aplikatzen du, kontsumo konparatiboaren edo estrapolatuaren beste neurketa mota bat baztertuz.

Erabilera eraginkorretik ondorioztatzen da erreperiotorioaren **erabileraren intentsitatea** (garrantzi kuantitatiboa) erabiltzailearen jarduera osoan, erabiltzen diren obra zehatzak alde batera utzita, denboraren ehunekoa adierazita. Irizpide hori aplikatzeko, obra edo prestazio baten errepikapen bakoitza obra edo prestazio baten erabilera gehigarriaren baliokidea izango da, lehen aldiz. Erabileraren intentsitatea erabilera eraginkorraren kalkulua zehazten du, eta hori da tarifa hauen oinarria.

Erabileraren garrantzia (garrantzi kualitatiboa) kualitatiboki erreperitorioaren erabilerak erabiltzailearen jardueran zer neurritan eragiten duen zehazteko irizpidea da. Memoria honen xede den EKKIren erreperitorioaren erabilerak (batez ere musika-obrak), musika-obrak kudeatzen dituen gainerako entitateen kasuan bezala, izaera nagusia du, eta, beraz, garrantzia handia, aipatutako Aginduak ezartzen duen bezala, Internet bidezko streaming zerbitzu-emaileen jarduera garatzeko ezinbestekoa den heinean.

Erreperitorioaren zabaltasunaren irizpidea erabilera eraginkorraren kalkuluan islatzen da; izan ere, obren erabilera eraginkorraren identifikazioaren bitartez, nahitaez lortuko da EKKIk kudeatutako obra eta prestazio babestuen proportzioa erabiltzaile bakoitzak ustiatutako obren guztiarekiko. Horrela, EKKIren tarifek, zeinaren erreperitorioa definizioz beste kudeaketa-entitateena baino txikiagoa baita, entitatearen beraren irismena mugatua delako, eskubidedunei onura berberak ematen dizkiete, erabiltzaileei gastu ekonomiko handiagoa eragin gabe. Aitzitik, erreperitorioaren zabaltasun ez hain handia gutxieneko tarifetan islatzen da, alde handia baitago EKKIrekin lehian dauden gainerako kudeaketa-entitateekin alderatuz gero.

c. EMANDAKO ZERBITZUAREN PREZIOA

CUD/330/2023 Aginduan ezarritakoaren arabera, emandako zerbitzuaren prezioa efizientzia eta kudeaketa onaren printzipioen arabera kalkulatu da. Honako kostu hauek hartu dira kontuan:

- Afiliazioa eta erreperitorioa lortzeko kostuak
- Erreperitorioa gehitzeko eta beharrezko metadatuak sartzeko sistemak ezartzearen eta erabiltzearen kostuak
- Erreperitorioaren erabilera eraginkorra, identifikazio eta *matching*aren kostuak
- Tarifen garapenarekin eta negoziazioarekin lotutako kostuak

Kostuak erabilera eraginkorragatiko tarifyan sartuta daude, eta eskubideak erabiltzeagatiko prezioaren % 25 hartzen dute, bai tarifyen V. atalean adierazitako tarifa-tasaren kasuan, bai VI. atalean adierazitako gutxieneko tarifyen kasuan.

III. MODALITATE BERERAKO BESTE ERABILTZAILE BATZUEKIN EZARRITAKO TARIFEKIN ALDERATZEA

Ez dago beste tarifa parekagarririk, eta EKKIren erreperitorioaren erabilera, modalitate honetan, tarifa hauen arabera izango da. Hala ere, CUD/330/2023 Aginduaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, EKKIk tarifak negoziatu ahal izango ditu erabiltzaileekin, betiere tarifa horrek dakarren oinarritik abiatuta.

IV. KUDEAKETA-ENTITATE HOMOLOGOEN EUROPAR BATASUNEKO BESTE ESTATU KIDE BATZUEKIN ERABILERA-MODALITATE BERERAKO EZARRITAKO TARIFEKIN ALDERATZEA

Honako kudeaketa-entitate hauekin alderatu da:

ENTITATEA	TARIFA-TASA %	GUTXIENEOA harpidetza	GUTXIENEOA doakoa
EKKI	% 13,5 - % 15	0,09€ s/m	125€
SGAE (ES)	% 15	0,564€ s/m	322,15€
BUMA-STEMRA (NL)	% 15	1,24€ s/m	x
SABAM (BE)	% 12	1,0531€ s/m	0,0032€ x stream

Kontuan izan behar da alderaketa egin den kudeaketa-entitateek egile-eskubideak kudeatzen dituztela bakarrik, EKKIk ez bezala, tarifa-tasa berean sartzen baititu lotutako eskubideei dagozkien ordainsariak.